

523/2022 Ebazpena, ekainaren 20koa, Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariarena, zeinaren bidez agintzen baita Osakidetzaren webgunean argitara daitezela aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak (2018ko kontratazio-zerrendak), zehazki, lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda, Familia eta Komunitate Erizain Espezialista modalitatekoak, 6. lehentasuna, 2020ko maiatzaren 13ko Aginduak araututako "Covid-19aren pandemiaren konfinamendua arintzeko faserako zaintza- eta kontrol-programa: kasuen eta kontaktuen kontrola" programan integratzeko.

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren 183/2020 Ebazpenaren bidez, goragoko mailako funtzioak betetzeko zerrendetan eta aldi baterako kontrataziorako zerrendetan izena emateko epea zabaldu zen, Familia eta Komunitate Erizain Espezialista titulazioa zutenentzat.

2014-15eko Enplegu Publikorako Eskaintzaren ondoriozko Osakidetzako aldi baterako kontrataziorako zerrendak Osakidetza Ente Publikoaren Administrazio Kontseiluak 2011ko maiatzaren 9an emandako Erabakiaren arabera sortzen eta arautzen dira (2011ko ekainaren 6ko EHAA 106 zk.).

Osakidetzako Giza Baliabideen zuzendariaren martxoaren 29ko 329/2022 Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren aldi baterako kontrataziorako behin-behineko zerrendak, zehazki, lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda, Familia eta Komunitate Erizain Espezialista modalitatekoak, 6. lehentasuna.

Behin-behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,


EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Agintzea Osakidetzaren webgunean argitara daitezela 2018ko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak, zehazki, lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda, Familia eta Komunitate Erizain Espezialista modalitatekoak, 6. lehentasuna.

Zerrenda horiek 2022ko ekainaren 21etik aurrera egongo dira indarrean.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 20a



Osakidetza
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS
Sin.: Luisa Larrauri Ereñozaga

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD